

EPEZ XVIII BEKAK (ERASMUS+): OHIKO GALDERAK

Zeintzuk eska dezakete beka?

UPV/EHUⁿ, ondorengo titulazioen bat ikasten ari diren azken ikasturteko (2022/2023) ikasleek: lizentzia/ingeniaritza/arkitektura/gradua edo master ofiziala.

Berezko titulu bat ikasten ari banaiz beka eska dezaket?

Ez, UPV/EHUko master ofiziala izan behar du.

Noiz egingo dira praktikak Europako enpresaren edo erakunderen batean?

Behin ikasketak bukatzean 2022/2023 ikasturte akademikoan (2023ko ekain-urria) titulua eskuratu duten pertsonak.

Ikasketak 2023ko martxoan bukatu baldin baditut programan parte har nezake?

Ez. Gehienez urtebete igaro daiteke ikasketen eta praktiken amaiera daten artean.

Adin mugarik ba al dago?

Ez, baina batez ere esperientzia gutxiko edo eskarmentu gabeko gazteentzako programa da.

Lehenago ERASMUS mugikortasunen batean parte hartu duten pertsonak programan izena eman dezakete?

Bai, beti ere **guztira 9 hilabete baino gehiago** parte hartu ez badute matrikulatua dauden zikloaren baitan.

UPV/EHUⁿ master ofizial bat ikasten ari naiz, eta karreraren baitan 9 hilabete baino gehiago eman nituen ERASMUS ikasle. EPEZ XVIII programan parte har dezaket?

Bai; bederatzi hilabeteren muga ziklo bakoitzari baitagokio modu independentean.

UPV/EHUko master ofizial bateko lehen ikasturtean ari naiz. EPEZ XVIII programan parte har dezaket?

Ez; parte hartzeko baldintzetako bat ondorengo baita: 2022/2023 ikasturte akademikoaren baitan (2023ko ekain-urria) titulua eskuratu izana.

Zer adierazi nahi da merezimendu espezifikoekin?

Elkarrizketa pertsonala, CVaren ebaluazioa, motibazioa...

Lanean arituz gero, programan parte hartzea eska daiteke?

Bai, EABA/DARDEa aurkeztuz gero (agiri horrek ziurtatzen duena da LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan alta egina izatea). Dokumentu hori UPV/EHUko edozein Enplegu Guneetan lor daiteke (derrigorrezkoa, EAEko herritarrentzat bakarrik).

Noiz aurreikusten da praktiken hasiera atzerriko herrialdeetan?

2024ko otsailan/martxoan

Zenbat irauten dute praktikek?

3 hilabete.

Zeintzuk dira helmuga herrialdeak?

Austria, Irlanda, Italia, Malta, Portugal, Polonia eta Txekiar Errepublika.

Atzerriko hizkuntzen mailen ezagutza nola frogatu dezaket?

Ziurtagiri ofizialen bidez (University of Cambridge, Hizkuntz Eskola Ofiziala, IELTS, TOEFL...).

Izen-ematea web bidez egin al daiteke?

Bai, formularioaren bidez modu telematikoan. Lehenetsitako aukera da.

Bekak zer hartzen du bere gain?

Asegurua, atzerriko herrialdean bazkide bitartekariaren laguntza, praktikaren bilaketarako kudeaketa eta diru-laguntza ekonomikoa.

Noiz ezagutuko da praktiketarako enpresa zein den?

Atzerriko enpresaren datuak azken momentuan izango dira eskuragarri; irteera baino egun gutxi batzuk lehenago.

Deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea noiz amaituko da?

2023ko uztailaren 7an.